

GURASOEKIN HEZKIDETZA LANTZEZ. ANAITASUNA IKASTOLA

Gurasoen, irakasleen eta seme-alaben arteko harremanak ume eta gaztetxoek garapenerako erabakigarriak dira, hauek direlako haurren lehenengo erreferenteak eta hauen esku baitago umeen heziketa. Guraso izatea eta eskolan irakaslea izaten jendarteratze prozesuan lan mardula da. Askotan, kezkak eta zalantzak sor daitezke, gure haurren egunerokotasunean gertatzen diren egoeren aurrean nola erantzun asmatzen ez dugularik.

Helburu nagusia haurren eta nerabeen garapenaren oinarri psikologiko, sexual, komunikatibo eta sozialak aztertzea genero ikuspegitik eta harreman berriak sortzeari begira tresnak ematea izango da.

Parte-hartzean eta elkarlanean oinarritutako metodologia jarraituko da eta saioak dinamikoak izango dira. Gurasoek, gai hauen gainean **hausnartzeko eta eztabaidatzeko** aukera izango dute, eta horrez gain, esperientziak elkartrukatzeko eta kezkak azalertzeko.

Otsailaren 3an arratsaldeko 18retatik 20retara Lobianon.

Gaiak:

- Genero sistemak eta jendarteratze prozesua
- Berdintasunean heztearen garrantzia
- Hezkidetzaren definizioa
- Baliabideak.

Ikastaroaren metodologia ondo prestatu ahal izateko zenbat guraso hurbilduko zareten jakitea ezinbestekoa dugu beraz parte hartzetako interesa duzuenak bete orriaren beheko zatia eta eskolan entregatu.